

Karmentxuren burutazioa

Amaia Alvarez Uribe



Goizetan lasai egoten da Karmentxu. Bakarrik dagoenean ohetik jaiki, irratia entzunez gosaldtu, eguraldi ona badago paseo bat eman, eta ondoren bazkaria prestatzen du. Bazkalostea ailegatzean, ordea, urduri jartzen hasten da. Telebistan berri triste eta desatseginak besterik ez dituzte eskaintzen, eta elkarri oihuka dauden pertsonak agertzen dira edozein katetan. Iluntzerako, tripetan sortu zaion korapilota bihotzetik igaro eta eztarrian geratu da. Orduan heltzen zaizkio ahotsak: “Berriro ahaztu zaizu...”, “Oraindik ez duzu amaitu...”, “Zertan zabilta! Gaurko da eta!”, “Ez duzu ezertarako balio”, “Zuk ez dakizu, utzi niri”, “Ez dago zu agoantatzerik!”.

Horrelakoetan, Karmentxuk ez du txintik ateratzen; badaki hobeto dagoela ixilik, azkarrago pasako dela ez badu ezer egiten. Txiki-txiki egiten da, ia ikusezin, apenas hartzen du arnasa, ez du zirkinik ere egiten. Baina egunero errepikatzen da dena, eta berak ez dauka lehengo indarra.

Egun batzuetan burua betetzen saiatzen da telenobelan agertzen diren protagonisten istorio korapilotsuekin, albistegietako gertakariekin, auzoko azken txutxumutxuekin. Baina bestetan zera pentsatzen du: bizitza osoa pasatu du bere familia zaintzen, ortuan eta fabrikan lanean, bere senarra maitatzen eta bere seme-alabak zaintzen. Eta orain, bakarrik eta hutsik sentitzen da.

Bat-batean txirrina jo dute. Nor da? Margari, behean bizi den auzokoa. Bakar-bakarrik bizi da, eta bere familiak zahar-etxera eraman nahi dutela esan dio. Ezin duela bere etxea utzi, zahar-etxean ez duela inor ezagutzen. Ez dakiela zer egin. Zuk ulertzen nauzu, ezta? Juanitarekin gogoratu da orduan. Hura ere bakarrik bizi zen, baina herrian, etxe handi batean, eta Karmentxuri han berarentzat lekua izango zuela esaten zion beti, nahi zuenean joateko.

Bazkaldu eta maletak egin dituzte Margarik eta Karmentxuk. Herrira doan autobusa ordu erdi barru aterako da. Taxiari deitu diote eta dena prest daukate. Juanita, telefonoaren bestaldetik bere ahotsa entzutean, oso pozik jarri da. Margari eta Karmentxuren aurpegieta argi berezia dago. Taxi gidariari arraro iruditu zaio bi atso barre txikiak egiten ikustea, elkarri eskuak samurki estutzen. Gaur iluntzean ahotsak ez dute inor izango aurrean euren amorrua botatzeko. F